

TITIRITARIYA

(I P U I Y A)

Tronpeta luze zapaldu baten
soñu latz basto ozkiyan,
bildutzen zuben jendia pillan
beraren jira guziyan,
eztakit nongo erri bateko
plazaren erdi erdiyan.

—Jaunak, atera dijua dantza
ikusgarritzko graziyan,
mundurik mundu izan eztana
sekulan zuben erriyan.—
Burnizko chapa ordoitu baten
ez beintzat chukun garbiyan,
bost sei egazti luma jariyo
artuta denak nasiyan,
burni gañera an bota ditu
zeukazkiyenak saskiyan.
Oñak gañian jarri orduko
saltoka ziran abiyen
eta egalak zalapartaka
kolpeka iya ausiyan,
beren chiliskak aitzen zirala

Aranuako mendiyan.
Jiran zeudenak farrez itotzen
arkitzen ziran gloriyan,
—esanaz—oyen pechubak pozez
daude lertzeko zoriyan,
¿bestela nola gelditu gabe
dantzatu ordu erdiyan?.
Batek albotik erantzutendu
ustez zerbait errabiyan,
—gaizki pentsatzen ari zerate
diyot bigarren aldiyan.
Oyék arkitzen dira gaisuak
chit sufrimentu aundiyan,
zeren daukaten burni sutsua
beren oñaren azpiyan.—

.

Oyen modura izango dira
daukazkitenak agiyan,
sufrimentubak gordian eta
far-irriya ageriyan.

V. IRAOLA.